BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO

40. zk. 2025, otsailak 27. Osteguna 1. orr.

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Basauriko Bake-Eepaile titularraren eta ordezkoaren plazak betetzeko lehiaketa publikorako deialdia.

Alkateak 581/2025 Dekretua eman du otsailaren 17an. Honelaxe dio bertako testuak:

Lehenengoa: Basauriko Udaleko bake-epaile titularraren eta ordezkoaren plazak betetzeko lehiaketa publikorako deialdia egitea.

Lanpostuaren betekizunak:

1. Espainiarra eta adin nagusikoa izatea.
2. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102, 302, 303 eta 389. artikuluetan eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Araudian kargu judizialak betetzeko aurreikusitako ezintasun edo bateraezintasunik ez edukitzea.
3. Alderdi politiko edo sindikatuetako kidea ez izatea edo horietan lan ez egitea (ekainaren 7ko 3/1995 Araudiaren 23. artikulua).

Eskabidea egiteko modua eta epeak

Eskabidea Basauriko Udalari zuzenduta egongo da eta Internet bidez aurkeztuko da, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoan dagoen eskabidea beteta:

— https:// sedeelectronica.basauri.eus

Halaber, eskabideak aurkeztu ahalko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluak xedatutako moduan.

Eskabideak aurkezteko hogei egun balioduneko epea egongo da, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera. Eskabidearekin batera, hala badagokio, honako hauek aurkeztu beharko dira:

— NANaren fotokopia.

— Curriculum vitaea, eta interesdunak bere eskabiderako egoki iritzitako beste dokumentu batzuk.

— Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102, 302, 303 eta 389. artikuluetan eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Araudian kargu judizialak betetzeko aurreikusitako ezintasun edo bateraezintasunik ez edukitzea.

Hautaketarako udal prozedura

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero, Barne Erregimeneko Informazio Batzordeak eskabide horiek eta erantsita dituzten dokumentuak aztertu, eta bake-epaile titular bat eta ordezko bat proposatuko ditu. Legeak ezarritako baldintzak betetzen dituen hautagai bat baino gehiago badago, merezimenduen baremazio hau egingo da:

— Zuzenbidean lizentziaduna izatearen titulua aurkeztea: 5 puntu.

— Bake-epaile gisa izandako eskarmentuari buruzko ziurtagiriak aurkeztea: gehienez ere, 4 puntu. (proportzionala, izangaiel emandako esperientziari dagokionez).

— Euskara-ziurtagiriak aurkeztea: gehienez ere, 4 puntu:

- 1. hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea: 1 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea: 2 puntu.
- 3. hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea: 3 puntu.
- 4. hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea: 4 puntu.

Proposatutako bake-epaile titularrari eta ordezkoari, printzipioz, telefonoz deituko diete, kargua onartzeko idatzia aurkez dezaten, berehala. Horrez gain, kargua egikari-

eek: BAO-2025a040-(II-979)

tzeko aurreikusitako ezintasun edo bateraezintasunik ez izateari buruzko zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute.

Behin betiko hautaketa Udalbatzak egingo du, gehiengo osoz. Izangairik ez badago, Udalbatzak nahi dituen pertsonak hautatu ahalko ditu (6/85 Lege Organikoa, 101. artikulua).

Udalak, bestalde, Udalbatzaren Erabakiari buruzko ziurtagiria eta dagozkion beste agiriak bidaliko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiari.

Bigarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udal webgunean eta iragarki-taulan argitaratzea:

— www.basauri.eus

Hirugarrena: Ebazpen hau Bilboko Epaitegi Dekanoaren Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegira bidaltzea, jendaurrean jar dezaten. Adierazi beharko dute 20 egun balioduneko epea egongo dela eskabideak aurkezteko, Ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera.

Basaurin, 2025eko otsailaren 19an.—Alkatea, Asier Iragorri Basaguren

eek: BAO-2025a040-(II-979)